



Balioa izango duen diskurso bakarra hizlariak bertan eskainiko duena izango da.
El único discurso válido será el pronunciado por el orador o la oradora en el acto.

IMANOL PRADALES
Donostia, 2024ko apirilaren 17a

Alderdi kideok, alderdizaleok, egun on!

Donostian gaudela, eta Kontxatik hain gertu egonda, lehen mezua argi daukat: lagunok, azken txanpan gaude! Hemen arraun egiteko ohorea izan nuen duela urte batzuk... eta arraunlari bezala nire ametsa bete nuen! Esperientzia ederra izan zen eta beti gogoan dut patroiak estropada garrantzitsuenean esaten ziguna trainerura igo aurretik... eta arraunean geundenean. Horrela esaten zigun: “ez dut alboetara begiratzerik nahi... ez dut zuen burua arraunetik altxatzerik nahi... hondartzan botea sartu arte, jo ta ke! La Perlako terrazan sartu arte... jo eta ke!”. Horixe da guk ere egin behar duguna... hautestontziak itxi arte, lana, lana eta lana! Igandera arte lana, lana eta arraun! Nirekin arraunean behar zaituztet! Estropada bukatu arte hemen dena dago irekita! 4 egun dira. 96 ordu. 5.760 minutu! Eta bakoitzak kontatzen du!

Ez dezagun alboetara begiratu, ez dezagun burua altxatu! Ikusi dituzue egunotako inkestak. Dena zabal-zabalik dago. Inkestean arabera, %25 dira zalantzan dabiltsan pertsonak. Horrek esan nahi du guztiok dugula gure inguruan bota ematea edo ez ematea pentsatzen dabilen norbait. Zalantzan dagoen norbait. Aldi berean, zenbatetan entzun dugu gure inguruan... “azkenean batzuen edo besteen babesarekin gobernatuko duzue... batzuen edo besteen babesarekin iritsiko da gobernura Euzko Alderdi Jeltzalea...” Eta hori gertatuko ez balitz? Kontuz! Hemen ez dago ezer ere bermatuta. Hemen bermea emango duen bakarra apirilaren 21ean bozka ematea izango da. Euzko Alderdi Jeltzaleak gobernatzea nahi badugu, EAJ bozkatu behar da! Euskadik behar duen eta herriarrek merezi duten gobernua izateko! Ez gaitezen arriskatu! Ondo dakizue zer dugun jokoan! Euskadiko etorkizuna eta ongizatea dugu jokoan! Igandean indar berria! Igandean Euzko Alderdi Jeltzalea!

Egunotan asko hitz egin dugu bi ereduez. Batzuen eta besteen arteko differentziez. Eta zuek ondo baino hobeto dakizue bestea zein den. Bada adibide garbi bat, zaborrekin zerikusia duena, Gipuzkoarrek sufritu zenuten eta, batzuek, oraingoz, sufritzen jarraitzen dute. Batzuek erabaki zuten sistema hori ezartzea. Inposatzea. Ez zuten galdetu herria ados edo kontra zegoen. Gobernura heldu eta ezarri zuten, beraiek guk baino hobeto dakitelako zer den behar duguna. Zer den ona eta zer txarra. Noiz jan behar dugun arraina eta noiz fruta. Eta ados ez bazaude? Zure arazoa da! Ez beraiena! Ez dezagun hori berriz ere gertatzerik utzi. Gu k dugu erabakia. Gurea da hitza!

El pasado domingo, cuando salímos del mitin de Donosti, me pasó algo que quiero compartir con vosotras y vosotros. Me paró un hombre. Se llamaba Joxemari: “¡Imanol!, vosotros del PNV tenéis que escuchar más más a la gente”. Dicho y hecho. Estuvimos charlando más de 10 minutos. Me comentó que éramos un partido que mirábamos más por Bizkaia, que, según su opinión, dejábamos de lado Gipuzkoa y que de ahí podía venir el auge de Bildu. Que esa subida de la izquierda abertzale le dolía en el alma, que no podía creerlo. También me dijo que antes votaba al PNV y que últimamente lo hacía en blanco. Sin querer había topado con ese votante al que tratamos de volver a convencer. Le expliqué nuestras propuestas en materia de vivienda,

en materia económica e industrial, lo que queremos para Osakidetza, nuestra Educación o la Ertzaintza y también nuestro proyecto para Anoeta Berri o Gipuzkoa. Le gustó lo que escuchó. Pero, sobre todo, me gustó escucharle. Porque esa es nuestra obligación. Escuchar a la sociedad, escuchar a la gente. Conocer sus preocupaciones y problemas, y darles una solución. Al final, le hice alguna pregunta: ¿Con el PNV Euskadi ha ido a mejor o a peor estos años? ¿Tu vida personal y la de tu familia ha ido a mejor o a peor? ¿Qué nota le pondrías a tu calidad de vida en Euskadi? Me contestó que Euskadi nada tenía que ver con lo que era hace 30 años. Que su vida y la de su familia era buena y que valoraba su bienestar con notable... pero que había algo que todavía le hacía dudar en su voto. Es entonces cuando le pregunté... ¿qué te preocupa? Me contestó que la vivienda, la seguridad, los cuidados, la sanidad y el empleo. Y le dije: y las demás opciones... ¿qué te proponen para mejorar la economía, el empleo, la seguridad, la sanidad, los cuidados o la vivienda? No me supo dar una respuesta concreta. Nos despedimos con un fuerte apretón de manos. Os lo digo con sinceridad, no sé si le convencí. Espero que sí. Lo que sí sé es que hice algo que estaba en mi mano: escucharle y hablarle de nuestra propuesta. ¡Y también explicarle que está en juego el futuro gobierno de Euskadi! Que estas elecciones son en clave vasca. No son en clave española, foral o municipal. Que es el futuro de nuestro País lo que está en juego. Que elegimos Lehendakari y gobierno para Euskadi. Y que sólo hay dos opciones. Por eso estos días a la gente hay que hacerle las mismas preguntas que a Joxemari.

Y si la respuesta es que Euskadi ha ido a mejor, y su vida ha ido a mejor..., hay que animarle a votar PNV. Y advertir que ikontuz! con quien nos invita ahora a cambiar a ciegas la casa que hemos construido con tanto esfuerzo y sacrificio entre todas y todos. Su anuncio inmobiliario es que su vivienda es amplia y con buenas vistas, pero no dice más. No adjunta ni una fotografía que lo acredite. Es normal que lo pinten así de bonito, cuando se han pasado años intentando destruir lo construido. ¿Qué han aportado ellos para mejorar la economía, el empleo, la seguridad, la sanidad, la educación o la vivienda en este País? ¿Cambiaríais acaso vuestra casa sin haber visto la otra? No, ¿verdad? Cuidado con los radicales cambios a ciegas...no vaya a ser que luego nos llevemos una sorpresa desagradable y no haya vuelta atrás. Por eso ¡Hoy apelo al voto del orgullo! ¡Ese voto del orgullo que sentimos por la Euskadi que hemos construido entre todas y todos! ¡Por quienes siempre hemos trabajado arrimando el hombro! ¡Votar al PNV es votar por el orgullo del País que tenemos y por seguir mejorando nuestra única casa, Euskadi! ¡Porque yo estoy orgulloso de Euskadi! ¡Orgulloso de ser vasco!

Euzko Alderdi Jeltzaleak beti izan du oso garbi historiarekin ze aldetan egon behar zuen. Horrela da historian zehar badira aukeratu beharreko momentuak, eta aukeraketa horretan alde egokian egon gara beti... demokraziaren, elkarbizitzaren eta giza eskubideen defentsan. Alderdi Ederren dugu 'Oroimenen' eskultura. Biktima guztiak gogoan... bakar bat ere ahaztu gabe... Memoria osoa. Beti izan dugu indarkeriaren iragana argitzeko konpromisoa, kasu guztietan, inolako salbuespenik gabe. Beti izan dugu giza eskubideen urraketan biktima guztiei elkartasuna, aitortza eta ordaina emateko konpromisoa, inolako salbuespenik gabe. Eta biolentzia guztiak gaitzesten eta kondenatzen ditugu, inolako salbuespenik gabe. Balio horien gainean bakarrik eraiki ahal izango dugu etorkizuna... bestela, egindako akats larriak errepikatzeko aukerak biderkatuko ditugu. Memoriaren transmisión ezinbesteko gaia da, eta gure belaunaldiari ere dagokio egitea. Egin dezagun ongi, egin dezagun zintzo. Orrialde batzuk ezin daitezke behin betiko itxi. Beti egon behar dute zabalik noizbehinka irakurtzeko. Biktimatek merezi dute. Herri honek merezi du. Begiratu dezagun aurrera iraganaren gaineko kritika zorrotza egin eta gero! Bakoitzaren erantzukizuna definitu eta gero! Beldurrik gabe!

Badago nire ustez egun hauetan zabaldu behar dugun beste mezu bat. Bizitzan, orokorrean, etxearen, lanean, lagunekin... batzuetan hanka sartzen dugu. Dena ez dugu perfekto egiten. Pertsonak gara. Ez gara robotak, ez gara adimen artifizialaren emaitza. Sentimenduak eta emozioak ditugu, egun onak eta txarrak, umorea eta tristura. Baino batzuetan, publikoki



autokritika egitea kostatzen zaigu eta onartu behar dugu. Denoi kostatzen zaigu. Ahulezia zeinu modura interpretatzeko dugu. Bainaz ez da horrela, kontrakoa baizik. Bere lan egiteko moduan eta ereduaren benetan sinisten duenak bakarrik izan dezake gaitasuna autokritikarako. Norbere burua biluztea indargune bat da. Badakizue zergatik? Akatsak egitea, hanka sartzea, onargarria delako. Onargarria ez dena da ispiluaren aurrean ez jartzea. Eta hanka sartzen badugu atera eta aurrera! Horrela egiten saiatu naiz beti nire ibilbide politikoan. Eta berdin jarraituko dut! Apaltasun osoz! Beti aurrera!

Benetako estropada igande honetan da eta zuon guztion laguntza beharrezkoa izango da! Konbentzitu dezagun bat eta gero beste bat! Hitz egin dezagun... konplexurik gabe! Eta kontrajarri ditzagun batzuen eta besteon ereduak! Bukatzera noa. Eta etorkizunera begirako mezu batekin amaituko dut. Biharko Euskadi irudikatzen dudanean ongizatean hazten den herria irudikatzen dut. Ongizatean haztea, hori da sekretua. Horretarako gure agenda hirukoitz da tresna nagusia. Eta zer esan nahi du horrek? Europako osasun sistema publiko onenetakoa bermatuta izatea esan nahi du. Baita nagusiak garenean zaintzarik onenak izatea ere kalitatezko industria eta enplegu berriak. Euskadiko kale eta auzoetan segurtasuna bermatuta izatea. Euskadi askeago bat lortzea, nazioarteko mailan ahotsa eta erabakitzeko maila izango duena. Eta sortzen ari diren arrakala berriei aurre egingo diona. Hori da nire, gure, etorkizuneko Euskadi. Eta zuekin batera eraiki nahi dugu! Horregatik igande honetan indartsu egon behar dugu! Euzko Alderdi Jeltzale indartsu bat behar dugu igande honetan. Emaitza sendo batekin, gobernu indartsu bat osatzeko eta akordio sendoak landu ahal izateko. Ez dezagun burua arraunetik altxatu! Eta egin dezagun arraun Euskadiko bandera irabazi arte!

Igande honetan, eman botoa Euzko Alderdi Jeltzaleari!

Gora Euskadi Askatuta!